



# ARKUMEAREN FESTA OSPATU DUTE MUSULMANEK

Pasa den ostiralean ospatu zuten urteko egun garrantzitsuena dutena; Beotibar pilotalekuan bildu ziren errezatzeke >3

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Igandea  
2009-12-06**

VII. URTEA 1.846. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Goian, San Frantzisko pasealekuan artisautza azoka. Behean, Txuleta-ren Festan, atzoko bazkaria. R. CALVO/E. MAIZ

## **BADA ZER IKUSI ETA ZER JAN ASTEBURU LUZE HONETAN**

**TOLOSA** Txuleta-ren Festa herenegun gauetan hasi zen Zerkausion; honen baitan, hainbat ekitaldi daude, tartean artisautza azoka 6



Erakusketa ikusgarria da Aranburu jauregian jarri dutena. E. EZEIZA

## **Quebec-eko txotxongiloei begirada**

**TOLOSA** Titirijai jaialdiaren baitan, Quebec-eko txotxongiloen erakusketa dago Aranburun 4-5



Erretore etxea  
Herriko plaza z/g  
20259 Baliarrain  
-----  
**943 163 076**

» **Uzturretik**

Iratxe Etxebeste

**E**z dut begirik bildu gau osoan. Kezkati, artega nagoelako izango da, oraindik sortu ere egin ez diren horiek hazten, heltzen ikusi nahi ditudalako joan aurretik. Dena egina utzi zu etorri aurretik, zu etortzearekin batera mundua akabatuko balitz bezala. Kon-

**Umeari**

turatuko zara, laztana, antsietateak ez duela batera mesede egiten, eta, hala ere, harrapatuta gauzkala gu denok, kaiolak txoria nola.

Ez, ez dut ia lorik egin bart ere, eta euria entzuten nuen bitartean zurekin akordatu naiz. Zure bihotz taupadekin, zure esku ia ikusezinekin, ezagutzen ez dudana zure irribarrearekin. Eta sartu naiz, berriro, egunak asteetan kontatzen ditugunon mundu harrigarri honetara, besterik ezean, beste behin, hor zaudela jabetzeko.

Ze gutxitan egiten dizut hitz baina gero eta gehiago sentitzen

zaitut. Gero eta biziago zauzkat barruan, gogoan. Bai, maitea, urrun gelditu dira hasierako zantalza guztiak. Nola esan, ustekabeen sortutako miraria zara.

Bizitza zara. Ilusioa zara. Poza zara. Zara galdera. Zara duda. Zara ardura. Zara hormonen leherketa, sentimenduen dantza. Zara ekografia bat, eta beste bat; emaginaren kontsulta, ginekologoa, odol analisia. Zara lagunaren deia, amaren jertsea, aitaren isilatasuna, ahizpen izeba izateko irrika. Zara mantaren gozoa, negar itoa, arrakala bat bularrean.

Zara nahigabea bihotzean, pasioa zutaz galdetzean, ilunabarreko ilargi beta. Zara sekula izan gabeko hori, ez dena izango gehiago inoiz niretzat.

Aitatxok ere ez dezake jakin zer zaren benetan, ahalegindu arren sabelera edo begietara begiratzen didanean. Berak bai, berak sarritan hitz egiten dizu, eta laztandu egiten zaitu, eta ematen du zuk eskertu egiten diozula, geldi-geldi egoten zarelako bere eskuen berotasuna nabaritzen duzun bakoitzean.

Maiatzaren lehenak ekarriko omen zaitu gugana. Ordurako etxe honek zure usaina izango du. Eta kanpoan orain euria erortzen.

**Z Zurea de hitza****Tolosako zubi berriaren inguruan**

Nik ere egia esan ez diot erabilgarritasun aldetik gehiegirako balio duen zantzia hartzen zubi berri horri. Baina, agian, hori inguruan bizi direnek eskertu egingo dute. Ez dakit. Nire uestez, beste zerbaitean erabili beharko litzateke diru hori, eta ez hain beharrezkotzat jotzen ez dugun zerbaitean. Krisi garaian gaudela kontuan hartuta, gainera, are gehiago. Badira, kaleak, auzoak... konpontzeko behar handia dutenak, esaterako.

**Tolosarra.****A Asteko irudia****Beharrezko duen airea eman euskarari**

**TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA** • Abenduaren 3a Euskararen Eguna izaki, ekitaldi ugari antolatuta zizutzen eskualdean. Ikastetxe guztietan izan zituzten bai egun horretan, bai eta astean zehar, ekitaldi bereziak, jokuak, ipuin kontaketa, musika emanaldiak edota hitzaldiak. Egun horretan datuak ere eman zituzten. Asteasun, esaterako, egin duen azterketaren arabera guraso-

en artean geroz eta gehiago entzuten dela gaztelania esan zuten, eta horren ondorioz, euren umeek ere gaztelarazko joera izan dezaketela. Hala, euskara erabiltzeko duen garrantziaz ohartarazteko mezu hori zabaldu zuten. «euskarari airea ematea», alegia. Asteasun bezala, beste herrietan ere ez legoke gaizki mezu hori zabaltea bere garrantziaz jabetzeko. i.e.

**H Hilberriak, urteurrenak eta eskertzak****LUIS LEGARDA-EREÑO PAGOAGA**

Jauna

Atzo hil zen, 74 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Gogorra da onartzea gehiago ez zaitugula ikusiko, baina bizi garen artean ez zaitugu ahaztuko.

Emaztea: Maria Pilar Aguirrezabalaga Orbegozo; seme-alabak: Jose Luis eta Jaione, Iosu eta Eba; bilobak: Garazi, Ioritz, Anartz eta June. Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzetezela GAUR IGANDEAN, eguerdiko 12:30ean, Azpeitiko Soreasuko Sebastian Deunaren parroikia elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Olazko Amaren Enparantza 7, 7.a.

Oharra: Hilbeila Azpeitiko Carmona ehorzketatanarioan egongo da.

**AZPEITIA**  
2009ko abenduaren 6a**LUIS LEGARDA-EREÑO PAGOAGA**

Jauna

-Goian bego-

Berezia izan zara aittite aparta benetan!

Zure ondoan koskortzeko zortea izan dugu.

Eredutzat hartuko zaitugu

Muxu handi bana.

**Zure bilobak: Garazi, Ioritz, Anartz eta June****AZPEITIA**  
2009ko abenduaren 6a

I. urteurrena  
**M. JESUS IZAGIRRE ITURRIOZ**  
Andrea  
2008ko abenduaren 10ean hil zen.  
-Goian bego-  
Gure ondotik joan zinen baina gurekin jarraitzen duzu  
Bere omenez abenduaren 8an, asteartean, goizeko 10:30ean Ibarra San Bartolome elizan urtebetetze meza egingo da.  
**IBARRA**  
2009ko abenduaren 6a

ESKERTZA  
Orain gutxi hil zen  
**BAKARTXO GOIKOETXEA URDAPILLETA**  
ANDREA  
  
Sendi guztiaren izenean eskerrak beroenak jasotako laguntzagatik.  
**IBARRA**  
2009ko abenduaren 6a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

**HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK  
KONDEKO ALDAPA, 5 - 20400 TOLDOA  
TELEFONO: 943 67 00 40 FAXI: 943 670719  
WWW.FUNERARIAVASCONGADA.COM  
ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900

## Topaketa feministak

### » Iritzia

**Onintza Iraola**  
Tolosaldeko Bilgune Feminista

**D**atorren abenduaren 12an, emakume abertzale eta feministok hausnarketarako zita dugu Tolosan: Emakume Abertzaleon IV. Topaketa Feministak izango dira. Egun, mugimendu feministan orokortua den eztabaida bati heldu nahi diogu; identitatearen gaiari, alegia.

70ko hamarkadan hasi zen identitatearen inguruko eztabaida. Sexuak/generoak gizabanako ororen identitatearen eraikuntza baldintzatzen zuela argi geratu zen orduan. Garai hartan, identitatearen eraikuntza, egitate naturalak edota sozialak baldintzatzen ote zuten zengakoa.

80ko hamarkadan berri, ugari egin ziren emakumeon identitate anitzen inguruko erantzun teoriko zein praktikoak. Ondorioz, emakumeon identitate zabal-

kuntza hirukoitzaren baitan kokatu zen: sexua, klasea eta arraza (etnia). Euskal Herrian aldiz, mugimendu feministaren barnean 90ko hamarkadan hasi zen egonkortzen emakumeon identitatearen inguruko afera. Praktika feminista nagusiki identitate sexualetan oinarrituz.

Egun, mugimendu feministan pil-pilean dagoen gaiari heldu eta dimentsio zabalago bat ematea da Bilgune Feministaren helburua topaketa hauetan. Batetik, identi-

tatearen eraikuntza, subjektibotasunetik sortzen denaren ideia irauli eta identitateak norbere zein kolektiboan egiten diren praktikek zehazten dutela barneratzea. Bestetik, identitate sexualetak soilik, ez dituela emakumeon identitateak baldintzatzen argi uztea.

Beraz, emakumeon identitatearen eragin duten hiru ardatz identifikatzen ditugu: etnia edo nazioa, sexua eta klasea. Identitatearen inguruko hausnarketa giltzarri horietatik abiatuta, Euskal Herriko eraldaketa gauzatzeko beharrezkoak ditugun praktika feministak zehaztu eta horiek gauzatzeko

ezinbestekoak diren subjektu feministak identifikatzera jo nahi dugu. Horretarako, identitatearen gain sakontzeaz gain, instituzioek bideratzen dituzten politiken eta planen inguruan ere hausnartuko dugu. Benetan emakumeon egoera irauliko duten politika horiek ezaugarritzera goaz.

Azken topaketetatik lau urte pasa dira baina abenduaren 12an Tolosan, hasierako gogo eta ilusio berdinarekin elkartuko garelakoan gaude. Egokitu diguten guztia erantzi eta feminismoaz jantziko gara! Bilutzuz Jantzi! Identitate feministak sortuz, Euskal Herria aldatu.

### G Gutunak

#### Urzabal ibilbideari izena aldatzea

Bizitzan zehar ezusteko latzak izaten ditugu eta horietariko bat izan zen uztailearen 31n Villabonan gertatu zena. Herritarrek hasitako jaiei ertzainen isekak bat-batean amaiera eman zieten. Une horietan Remi Ayestaran herriko zinegotzia zen, ordura arte bezala herraren alde lanean ari zen, jaien antolakuntzan buru-belarri sartuta zegoen. Pozik eta ilusioz betetik dena txukun ateratzea zen bere helburu bakarra, «ea jaiak bakean amaitzen diren» esaten zuen. Jaiak esanahi berezia zuten Remi-rentzat, herritarrek inoiz baino gertuago sentitzen zituelako eta talde ezberdinen parte-hartzeak herria bizirik zegoela adierazten zuelako.

Guk, 2007ko ekainaz geroztik udalean berarekin lanean aritu garenok, badakigu zenbat ordu sartzen zituen udaletxeko gorabehe-

rak konpondu nahian. Badakigu zenbat sufrizten zuen eztabaida bat izaten zuen bakoitzean. Badakigu zein pertsona irekia, langilea, bihotz onekoa eta arduratsua zen. Eta horren guztiaren jakitun zen herri osoa. Hori argi utzi zuen Remiri azken agurra ematera hurbildu zen jendetzak.

Hemendik aurrera, Remiz hitz egiten dugunero, aditza nahi eta nahiez iraganean jarri behar badugu ere, gure oroimenean betirako tokia izango du. Eta herriak ere bere oroimenean gorde dezan, maite zuten guztien eskaera kontuan harturik, azken amasa eman zuen tokiari bere izena jartzea proposatzen dugu. Honela, hala onartzen bada behintzat, orain arte Urzabal ibilbidea izan dena, hemendik aurrera Remi Ayestaran ibilbidea izango da.

Remi herriak gogoan zaitu. **Maixabel Arrieta Villabonako alkatea, Julito Iturbe, Hautsi Izagirre, Maialen Abaigar eta**

**Josune Arretxe Villabonako Udala-Hautsetsi independentistak.** Villabona.

#### Konstituzio eguna

Iritsi da berriro ere konstituzioaren zubia, gorputzak biziki esker-tzen duen jai eguna. Baina kontzientziak guretzat arrotza den jai eguna dela gogorazten digu, Euskal Herriaren ukazioa ospatzen baitute, Euskal Herritarrok zer izan nahi dugun erabakitze-ko traba, Euskal Estatuaren erantzut ataka da espainiar konstituzioa.

Espainiarrak eta frantziarrek inposaturiko egutegia dugu, beren historian eta pentsakeran oinarritua. Baina zuk ospatu nahi al dituzu uztailearen 25a (espainiar patroia), urriaren 12a (Guardia Zibilaren eguna) edota abenduaren 6a (espainiar konstituzioaren eguna) bezalako jai egunak?

Helburua ez da jai egun hauek

kendu eta kitto, baizik eta euskal egutegi bat aldarrikatzen dugu, gure historia, nortasuna, borondatea eta beharrea oinarritua. Jai izango lirakeen proposamenak Udaltzuzak mahai gainean jarri zituen:

Martxoaren 8a (Emakumearen Nazioarteko Eguna), ekainaren 22a (udarako solstizioa) eta abenduaren 3a (Euskararen Eguna). Tamalez, nahiz eta gaur egun ez eduki tresnarik egutegi propioa adostu eta indarrean jartzeko, bada garaia abertzaleak elkartu eta euskal jendartearen gehiengoaren nahia gauzatzeko elkarlana burutzea.

Kontuan izan behar dugu, espainiarrak batu eta beren lana burutzen ari direla, gure lurraldeak espainolizatzen edo irudikatzen behintzat.

EITBren ikuspegi aldaketa agerikoa da, eguraldiaren mapa, erregearen gabonetako txapa zuzenean edota adibidez, N-1 erre-

pidean Iruñea, Gasteiz edo Irun-gororabidean gertatzen diren istripuak, aspaldian Madrid eta Frantzia norabideetan gertatzen dira (ez da kasualitatea).

Espainiar bandera non nahi agertzen da: prentsaurreko, ageriraldi, zenbait udal eta inposatua...

Espainiako futbol selekzioa ekarri nahi dugu, eta euskal selekzioaren partidurik ez da izango ofizialtasunaren bidean lan egingo ez dutelako.

Baina, ehunka kirolari kirol-harria antolatuta du abenduaren 27an belodromoan, Euskal Herriko federazioak sortzea eskatze eta ofizialtasunaren bidean pausoak emateko.

Bestetik, txalotzekoa da ere, Ibarrako hainbat mendizalek Uzturre mendian ikurriña jarri eta berau bertan mantentzeko hartu duten asmoa, Euskal Herriaren gabonetako txapa zuzenean edota adibidez, N-1 erre-

**Ibarrako Bai Euskal Herriari.**

## Arkumearen Festa, gurean

**TOLOSA** ● Tolosa eta inguruko herrietako musulmanek Arkumearen Eguna edo *Aid al-Adha* ospatu zuten pasa den ostiralean, azaroaren 27an. Kristauen Gabonen pareko festa izan ohi da eurentzat egun hori. Ramadana amaitu eta bi hilabete eta hamar egunera ospatzen dute Ibrahimek Jainkoari erakutsi zion fidelotasuna gogora ekartzeko. Itun Zaharrak eta Coranak jasotzen dutenez, Jainkoak zera esan zion Ibrahim: «Zoaz mendira eta eskaini zure seme Ismailen bizia». Esana betetzea erabakita, semea hiltzera zihoala Jainkoak gelditzeko esan, eta arkume bat bidali zion semearen ordez hil zezan. Hala, 09:00etan Beotibar pilotalekuan bildu ziren, eta otioitzekin amaitzean euren etxeetan jarraitu zuten festarekin, familia giroan. ITERRADILLOS





# BEGIAK QUEBECERA ZUZENDUTA

**Kultura** » Aurten Nazioarteko Txotxongiloen Jaialdiak Ipar Ameriketako herrialdeari ireki dio leihoa; erakusketak gaur itxiko ditu ateak.

**ESTREZEA**  
Iaz Erreialako txotxongiloari ireki zion leihoa Tirijaiak. Beti bezala, Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia igarotzekoan, atak itxietan begirada beste herrialde batetara jarri zen dute Tolosako Ekinbide Erakoek. Honek, aurtun, Ipar Ameriketako herrialde bati zabaltzea erabaki dute, Quebec-ek hain zuzen ere. Hala ere, astebetetz zabalik egon ostean, gaur begia beste alde batera begira jarriko da, datorren

urteko herrialde gonbidatua izango den horretara. Arazak jarrengian ikusgai da goen erakusketak honetara Quebec-eko txotxongiloaren historia eta gure egungo egoera hobeto azalduko balio du. Gainera, bilduma honi laguntzeko, eta herrialdea beste modu batean ere gerturatzeko, hostoak eren emandakid izan dira jaialdiaren egitarauaren baten. Quebec-eko txotxongilo ekimena enbat irakiten ari da Quebec-

ko Txotxongilarien Elkartearen eginkizun elkartzaileari esker. Quebec-eko txotxongilo antzerkia gutxi da. Bere historia laburra izan arren, Quebec-eko antzerkiaren antzitasun eta dinamismo handia ikus daitezkeen lengoia artistiko herriak arrakastaz aztertzen hasten gaitu.

Aro honetako profesionalak berriketa eta esperimentazioari espazio handi bat gaituzten diete eta ikusizuzunaren sormenetik lan dramaturgikoraino doaz. Gaur, berrirogo konpainia inguruen eta chun artisten eta kanakako ikidien inplikazioari esker, txotxongilarien quebeatar elkarrekin nazio zein nazioartean mailan bitzitasun

sortu duten txotxongilari eta konpainia ugari iri bidea ireki diete aitzindariak leku bat dute bertan.

**Historia agertzeko modu bat**  
Erakusketak Quebec-eko txotxongiloaren historia azaltzen du. XIX. mendeko eren larriak elkarrekin zuten garai batean sortu zen Quebec-eko arte honetan duen bereizitasuna beron hiru dantza edo gi- zion on dantziara. Elizak dantza egitea eta erretze galarazten zuten garai batean, txotxongiloak herri erabilizten hasi ziren antzerki, dantza egin, erre eta esan ezin ziren gauzak osteko.

Historian aurrera eginez, gela hana dute bi txotxongilari aitzindariak: Micheline Legendre eta Felix Mirib. Legendrek eskola sortu zuen eta artista ugari iri irakatsi zien. Artea moda tradizionalan landu zuen. Alemenatik pandoak Miribek beste hile batzuk esploratu zituen, txotxongilariak ez zutenak agerraraziz, adibidez, eta helduentzako obrak sortuz.

70. hamarkadan elkosioa gertatu zen. Garai hartan sortu ziren zortzi taldek egun jarraitzen dute eta horietatik seiren txotxongilak ikus daitezke Arazburun.

Helduentzako dramaturgia 80. hamarkadan garatzen joaten da eta antzerki instituzionalen ere bere lekua izaten hasten da. Bestalde, itzal-antzerkiak garrantzi handia du herrialde horretan eta horietatik beste gela bat gaituzten zuzendua da. Egun bertiz, txotxongilo erakundeak dira hango panoramaaren bereizgarri.

- » **NAZIOARTEKO TXOTXONGILO JAIALDIA**
- Abenduak 6, gaur**  
» **11:30an eta 17:00etan**, 2 eta 5 urte arteko haurrentzat saioak izango dira Topic-en, Quebec eta Kanadako Theatre des petites ames taldeak Pajko obra aurkeztuko du.
- » **12:00**, Kultur Etxean, Portugalgo Shakespeare women the taldaren *La tempestad* en un verso de egu lana ikusteko aukera izango da.
- » **17:00**, Leidor antzerkiaren *Conaiko Art stage* san taldearen eskuak *Dalle Story* lana izango da ikusgai.
- » **18:30**, Topic-en, Israeldik datorren *The Dream* Theaterren *En busca del sonido encantado* lana ikusteko aukera izango da.
- » **12:00etatik 14:00etara / 17:00etatik 20:00etara**, Quebeatar txotxongilora leihoa ireki, erakusketak ikusgai izango da egun hauetan, Arazburu Jauregian.
- » **12:00etatik 14:00etara / 17:00etatik 20:00etara**, Mailko txotxongiloen osatutako erakusketak ikusteko aukera izango da egun guzti hauetan. Txotxongiloen Nazioarteko Zentroan.


handiko komunitate bat ondekatzeko da.

Ipar Ameriketako herrialde honetako txotxongilo arteen bitzitasun eta antzitasunaren itxialda da erakusketak. Bertan, Quebec-eko milurteko arte hau ezagutzera eman duten eta quebeatar dramaturgiarene ere bere marka propioa

Zure negozioa ulertzen dugu

Ibilgailu Komertzialen Gama

**TOLOSA MOTOR, S.A.**  
San Esteban auzoa, 14 - A - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 65 03 37 Faxa: 943 65 29 38 • e-mail: tolosa.tolosa.redpeugeot.com



Quebecen kulturak garrantzia handia du, eta era berean, txotxongiloen munduak izan ere euren nortasunari eta leiazari eusteko bideetako bat da hau. © EUSA



Txotxongilo erakundeak Quebecko panoramaaren bereizgarri dira. © EUSA



## Perseoren mitoa eta hiru arkeologo

**TOLOSA** » Gaur bukatuko da Tirijai 09, baina orain ere irailkoak storiaren gozatzeko aukera eriz izan da. Ostialan Perseo heroi mitologikoaren bantia izan zen Topic-en, Quebec-eko Theatre de la Pire Especk Perseo lana eskaini zuen. Lanak taldearen antzerki for-

ma gogokoak bildu zirentzako antzerkia eta klowntzen jokoa. Perseo benetako pertsona izan zela frogatu nahi zuten hiru arkeologo izan ziren protagonista. Zeremonia tragiko eta aldi berean, iragria aurkitu zuten quebeatarrek. »



Itzal-antzerkiak garrantzi handia du Ipar Ameriketako herrialdean. © EUSA



Aste guzian zehar Tolosaldiko ikuskek bitxitsu dute erakusketak. © EUSA

**Gorritategi PRODUKTUAK**

Turki sorta **29 €**

Tolosa sortak  
Tolosa berriak  
Ipar Ameriketako  
Perseo gogokoak  
Aste guzian zehar  
Aste guzian zehar

**EUSKAL HERRIKO PRODUKTUEN OSATUTAKO SASKIAK**

44 €

» **59 €**

**Erosi berriaren plazan**  
EUSKAL HERRIKO PRODUKTUAK

» **azken egunak**

943-30 43 45  
www.berria.info  
harpidetza@berria.info

» **berria**

## Eskulanez bete da egun hauetan San Frantzisko pasealekua

**Azoka** » 17 postu bildu dira Lur Kolektiboren artisautza azokan; denetatik aurkitu daiteke bai jakiak eta baita bestelako produktuak ere.

### ERREDAKZIOA

Jendez lepo zegoen atzo goizean Tolosako San Frantzisko pasealekua. Izan ere, bertan Lur Kolektiboak antolatutako artisautza azoka dago egun hauetan eta ondorioz, Nafarroako artisauak dira nagusi Tolosan.

Guztira 17 postu bildu dira eta denetatik aurki daiteke bertan; Idiazabal eta Erroñkari gaztak, pastak, pateak, txorizoak, hestebeak eta bestelako jakiak, eta baita beira, bitxiak, kosmetika naturaleko produktuak, poltsoak, larruz egindako produktu desberdinak...

### Bigarren gozoki

Bigarren gozoki urtez egin dute azoka, iaz ere egin zuten, eta aurten oso ondo hasi dute azoka, gainera.

«Iaz oso eguraldi kaskarra egin zuten eta hori ere nabaritu genuen salmentan, baina gaur —atzo— oso eguraldi ona egiten du eta jende asko gerturatu da», argitu zuten azokan egurrezko gai desberdinak saltzen ari den saltzaileetako batetik.

Lehen eguna izan da, hala ere, jende asko begiratzera gerturatu dela nabarmendu dute saltzaileek, baina euren ustez datozen egunetan erostera ere gerturatuko dira, hori espero dute behintzat.

Artisauak astearte, hilak 8, bitarte egongo dira San Frantzisko pasealekuan goizez eta arratsaldean honako ordutegiarekin: 10:30etik 14:00etara eta 16:30etik 20:30era.



Produktu desberdinak aurkitu daitezke azokan; haurrei aurpegiak ere margotzen dizkiete bost euroren truke. R. CALVO

## Hasi besterik ez da egin Txuletarekin Festa

**Gastronomia** » Astearte bitarte Txuletarekin Festa dela eta ekintza ezberdinak izango dira; gaur 19:00etan pintxoak banatuko dituzte.

### ERREDAKZIOA

Txuleta Festaren asteburu luzeari hasiera ostiral iluntzean eman zitzaion afariarekin. Sarrearak erosten azkarrenak izan zirenekin lehen txuleta dastatzeko aukera izan zuten. Urtero bezala, aurten ere arrakasta izan du eta txartel guztiak bukatuak daude. Txuleta Festaren baitan, Tolosan, egitarau zabal prestatu dute.

Atzo eguerdikoa ere, 250 lagun inguruk bazkaldu zuten Zerkau-

sian antolatu duten jatetxean. Urdaiazpikoa, Tuterako kukuluak, Lodosako piperrak eta esparragoak, txuleta, Idiazabal gazta, zigarrak, teilak eta xaxuak jan zituzten eta guztia ardoaz lagunduta gozatu ahal izan zuten. Zerkausiaz gain, herriko beste hainbat jatetxetan ere menu berbera eskaintzen dute: Astelena, Beti Alai, Botarri, Bide Bide, Hernialde eta Usabal sagardotegian.

### 1.200 pintxo banatzeko

Goizeko lehen ordutik, 205 kilo inguruko pisua duen eusko labeldun txahala erretzen hasiko dira gaur. Burruntzian erreko dute eta 12 ordu inguruan sutan erre ostean, arratsaldeko 19:00etan hasiko dira txahal pintxo horiek banatzen

Triangulon. Erretako txahaletik, 1.200 pintxo inguru aterako dituzte eta 1,5 euroren truke sagardo trago batekin batera dastatu ahalko da. Ekimen hau, Tolosako J.L. Muñagorri, Martin eta Garikano harategien eskutik egingo da. Hauek Eusko Labela duen euskal okela saltzeko baimena duten harategiak dira.

### Gaur Beotibarren zesta-punta

Atzo 16:30ean hasi zen jaialdia eta hiru partida jokatu ziren eta azken partidaren Bigarren Mailako Lau 1. erdiko Txapelketako finala jokatu zen Argote eta Urrutikoetxearen artean. Partidak luze joan ziren eta azken 19:30ak jota hasi zen. Beotibar pilotalekua lepo bete zen batarren eta bestearen jarriztaileekin. Ez zen oihu, animo eta txalorik faltatu eta ezta animo kartelak ere. Azkenean, Urrutikoetxeak erraz irabazi zuen, 22 eta 10eko emaitzarekin.

Gaur berriz zesta-puntako partidak izango dira Beotibar pilotalekuan. Jai-Alive eta Beotibar zesta-punta raldea arduratu dira antolatzeko eta 17:00etatik aurrera hasiko da txapelketa klubeko puntista gazteen erakustaldiarekin. Eta 18:00etatik aurrera, Jai-Alive klubeko pilotari onenariok izango dira. Alde batetik, Egiuren II eta Konpa bikotea, Foronda eta Jon Arriagaren aurka ariko dira.



Txuletarekin Festan bazkalten eta Beotibarren jokatuako partida. E. MAIZ



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Gabonetako barazkiak azokan eskuratu ahal dira dagoeneko

**Azoka** » Kardua ikusi zen atzokoan azokan, eta baita kayote eta krones barazki exotikoak ere.

PABLO ALBERDI

Egun hauetako giro berezia gure azokara ere iritsi zen atzo eta oso egun polita bizi izan zela esan daiteke. Txuletaren Festak azoka Zerkausitik Triangulora mugiarazi zuen, baina horrek ere bere alde positiboa izan zuen. Asteburu honetan jende asko dago Tolosan eta horrek oso eragin baikorra izan zuen azokan.

Eskaerak aldetik, berritasun-garrantzitsu batzuk aipa daitezke. Izan ere, Gabonetako barazkiak hasi dira dagoeneko. Kardua hasi zen atzo, eta honekin, krones eta kayote barazki exotikoak. Denak bertan hazitakoak dira eta datozen asteburuetan ere aukeran izango dira.

Fruitu zerrenda ere oso polita izan zen. Errezil sagar asko ikusi ahal ziren eta kiwiak oso puntu onean zeuden. Urrak, intxaurrek eta gaztainak zeuden fruitu lehorraren artean.

Berdura plazan pazko loreak zeuden dagoeneko eta hemendik aurrera, geroz eta aukera handiago izango da postuetan. Hauekin batera, Gabonetako apaingarri desberdinak ere izango dira.

### » ATZOKO AZOKA

| BERDURA PLAZA Merk. | Gares.     |
|---------------------|------------|
| <b>Landareak</b>    |            |
| Azalea              | 7,00 10,00 |
| Ziklamena           | 5,50 -     |
| Erroneroa           | 4,00 6,00  |

### BERTAKO PRODUKTUAK Perretxikoak

|            |       |       |
|------------|-------|-------|
| Onddoa     | 14,00 | 24,00 |
| Ziza horia | 14,00 | -     |

### Fruta

|                 |      |      |
|-----------------|------|------|
| Kiwi            | 3,50 | -    |
| Gaztaina        | 3,00 | -    |
| Intxaurrea      | 2,50 | 4,00 |
| Errezil sagarra | 2,00 | 4,00 |

### Barazkiak (sorta)

|          |      |      |
|----------|------|------|
| Tipula   | 0,80 | 1,00 |
| Espinaka | 2,00 | -    |

### Barazkiak (kiloa)

|         |      |      |
|---------|------|------|
| Kardua  | 3,00 | -    |
| Kayote  | 3,00 | -    |
| Krones  | 3,00 | -    |
| Porruak | 1,00 | 4,00 |

### PRODUKTUEKOLOGIKOAK

|            |      |      |
|------------|------|------|
| Sagarra    | 2,00 | 3,00 |
| Kalabaza   | 1,60 | 3,04 |
| Mermelada  | 3,00 | 3,60 |
| Arraultzak | 3,50 | -    |
| Arroza     | 1,90 | 2,00 |



## Gaztainak AHTren aldaketan harira

**ANOETA** » AHT Gelditu! Elkarlanak gaztain jatea antolatzen duen atzoko. Anoetako plazan elkartzeko ziren eta bertan Abiadura Handiko Trenaren proiektuak izan dituen aldaketan berri eman zieten beraratuakoei. Era berean, planoak eta panelak ere eraman zituzten azalpenak argitze aldera. AHT Gelditu! Elkarlanaren

asmoa hilaren 19an Anoetako udaletxean gaiaren inguruan izango den batzarrerako informazioa zabalitzen hasia zen. Batzarra baino lehen, hilaren 11n, dena den, Abiadura Handiko Trenaren inguruan elkarlanak prestatutako DVD emanaldia izango da Anoetako Gaztetxean. R. CALVO

## Arratibel «jarduera sindikalaren aurka» ari dela salatu dute

**Tolosa** » Aibak enpresako bazkideetako bat da eta langileak kaleratu izana salatu nahi izan zuten Zerkausiaren aurrean.

ERREDAKZIOA

Ostiral iluntzean, LABek deituta Txuletaren Festa hastear zela eta, Zerkausiaren aurrean bildu ziren Aibak enpresako langileak. Joakin Arratibel tolosarra enpresako bazkideetako bat izaki Tolosara gerturatu ziren beraien desadostasuna salatu eta eskuorriak banatzera.

«Askatasun sindikalaren aurka burubelarri dihardu eta batik bat, gure jarduera geldiarazi nahian, LAB sindikatuaren aurka ari da», azpimarratu nahi izan zuten. «Joakin Arratibel famatuak, ez du zantalzarik izan gure ordezkarietako bat kaleratzeko ezta hauteskunde sindikalak sustatu nahian jardun zena ere kaleratzeko». LABek «oso emaitza onak» lortu zituen 9 ordezkarietatik 7 bereganatuz, eta honen aurrean, «berriro ere jardueraren sindikalaren aurkako kanpaina berria hasi duela» ezagutzera ematea dute helburu.

«Diktadoreez» aspertuak daukela eta «Aibako langile guztien interesen alde borrokatuko gara eta ez dezala pentsa kalte ordaina kitatuz konpontzen denik», argitu nahi izan zuten. Bestalde diruagatik ez baino «jarduera sindikalak eta lan baldintza hobekoak definitu nahian» ari direla borrokan



ESkuorriak banatzen aritu zituzten Txuleta Festaren aurrean. E. MAIZ

azpimarratu nahi izan zuten herenegun egunik agerraldian.

«Egimen hau, Aibak enpresak lan egiten duen enpresa guztietara eramango dute eta «nola diharduen eta nolako den» erakutsi nahi dute. «Denek ezagutzen ditu

gu lagunak, senideak, bizilagunak. Ezin dugu ezikusiarrena egin eta askatasun sindikalaren aurka aritu, jendea kaleratu eta jendea eragiatu, esan zuten, ez direla isilik geratuko argituz.

### @ Bideoak, argazkiak, azken berriak...

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN webgunean eskualdeko azken albisteak berri jasotzeko aukera izango duzue. Era berean, irakurleen ekarpenak eta iritziak jasotze aldera atal desberdinak aurkituko dituzue: *Zurea da hitza saila, inkestak, eztabaidak...* Hainbat bideo eta argazki ikusteko aukera ere badago, Juan Jose Ibarretxek Tolosan eskainitako hitzaldia, adibidez:

www.tolosaldekohitza.info

## Laburrak

### 'Perez Sagutxo 2' filma, asteartean, 17:30ean

**ARESO** » Zinema, euskaraz ere bai zikloaren baitan eskainiko duten Perez Sagutxo 2 filma ez dute hilaren 20an eskainiko hilaren 5eko TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAN irakurri ahal zen moduan, datorren asteartean baizik eta, hilaren 8an. 17:30ean proiektatuko dute lana Areson. Ekitaldia ALKEren (Altza di Leitzako Kultur Elkarte) eta Nafarroako Gobernuaren ekimena da, hain zuzen.

### Kirolari onenaren sariak banatuko dituzte Leidorren

**TOLOSA** » Hilaren 16an Tolosako kirolari onenaren sariak banatuko dituzte Leidor antzokian, baina horretarako tolosarren bozkak jaso nahi dituzte. Hauek dira aukeran dauden kirolari eta kirol taldeak: Lara Arruabarrena, Tolosa CF atletismo taldea, Leire Muñagorri, Mara Varela, Jaione Tejedor, Ainhoa Pagola, Joseba Rojo, nesken arrau taldea eta Alberto Vaquero. Hauetatik hiru aukeratu behar dira, horien artean hiru puntu, bi edota bakarra eman eta [kirolak@tolosakoudala.net](mailto:kirolak@tolosakoudala.net) helbidera bidali edo 943 69 74 55 telefono zenbakira deitu.

### Sortzez Garbiaren meza nagusia Santa Marian

**TOLOSA** » Astearteko, hilaren 8ko, Sortzez Garbiaren jaiaguna dela eta Tolosako Santa Maria elizan meza nagusia izango da 12:00etik aurrera. Mezan Santa Maria kaperak, koruak eta orkestra, abestuko dute.

### Shanti Txapelketan izena emateko aukera

**TOLOSA** » Egu berri guztietan bezala Areto futboleko partidak izango dira kiroldegian. Aurtengoa Shanti Txapelketaren 28. urtea da eta bertan parte hartu nahi dutenek hilaren 12a baino lehen eman behar dute izena Shanti Kirolak dendan (Arostegieta kalea). Bi maila izango dira, bai nesketan eta baita mutiletan ere: alebinena eta benjaminena. Lehenean 1998 eta 1999 urteetan jaiotako gazteek hartu ahaliko dute parte eta bigarregon, aldiz, 2000. eta 2001. urteetan jaiotakoek.

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Bigi garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe: 638 944 604 (Gurutze) edo 695 708 271 (Belen).

■ **Okindegi baterako.** Tolosan, as-teburuetan okindegi batean lan egiteko neska euskaldun bat behar

dugu. Harremanetarako telefono zenbakia: 665 727 929 (Eider).

■ **Kafetegi-okindegi baterako.** Tolosako kafetegi-okindegi batean pertsona bat behar da arratsaldez lan egiteko. 25 urtetik gorakoa izatea eskatzen dugu. Harremanetarako deitu 661 463 193 telefono zenbakira.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarralea:** 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Azoka

- **Tolosa.** Zesta-punta partidak Beotibar pilotalekuan: 17:00etan gazteak eta 18:00etan profesionalak.
- **Tolosa.** *Titiritero israeldarrik* ez elkarretaratzea Topic-en aurrean 18:00etan.

### Erakusketa

- **Tolosa.** Ignacio Garciaeren margolanak daude ikusgai Itaie tabernan.
- **Tolosa.** *Tolosarra angularra* Iñaki Elolaren argazki erakusketa Beti Alai tabernan.
- **Tolosa.** Titirijairen baitan erakusketa: *Quebec-era leihoa*, Aranburun.

### Zinema

- **Tolosa.** Leidor aretoan, bihar: 22:30ean, *Millenium 2* filma.
- **Villabona.** Gurea aretoan, gaur: 17:00etan, *Pluk* (euskaraz), eta 19:30ean, *Amelia*. Bihar (ikuslearen eguna): 22:30ean, *Amelia*.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

#### Gaur

- **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 67 0128.
- **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 52. 112.
- **Bihar**
- **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 67 36 49.
- **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



## Euskararen harira, bertsoan

**IKAZTEGIETA** • Udazken kulturalaren baitan eta hilaren 3an Euskararen Eguna zela eta, Kultura batzordeko kideek bertso afaria antolatu zuten atzo, Ikaztegiatan. Ostatu tabernan 25 lagun elkartu ziren eta afaria bezain ederra izan bertso saioa. Adin guztietako jendea elkartu zen ederki

afaldu, kontu batzuk esan eta Asier Otamendi eta Haritz Casabalen bertsoez gozatzeko asmoz. Irri, txalo eta kanturik ez zen falta izan. Guztientzat izan ziren bertsoak eta goizaldeko ordubiak arte luzatu zen festa. Orain, hilaren 11n berriz ere kantu saioa izango dute herrian. XANXI

## A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzaan: Udaletxeko bulegoa

agurrak

44

ABENDUAK 6

18:30 ELKARTEGIA, EUSKAL ETA KATALAN MUSIKARI ERREPASO HISTORIKOA. MARC BIOSCA ETA JOSEBA MARTIN.

+ HAUR LITERATUR ARETOA, AHOTSENEAN: SORTZAILEEN GUNEA, AURKEZPEN ARETOA

DURANGOKO  
EUSKAL LIBURU  
ETA DISKO AZOKA

gorediagona

BFA DFB

DURANGO

bbk

EROSKI

eitb